

**LEP-OPE 2007**

Dagoeneko Hezkuntza Sailak 2007rako iragarriko duen Lan Eskaintza Publikoaren (LEP) deialdiaren ZIRRIBORROA. Azpimarratu nahiko genuke jarraian jasoko duzun informazio laburtua BEHIN BEHINEKO gisa hartu beharrekoa dela ZIRRIBORRO batetik aterata baitago. Honela bada, LEP-OPEak izango lituzkeen atal esanguratsuenak honakoak izango lirateke.

**AZTERKETA FASEA. %60**

**1.- Frogaren hasiera:** ekainaren 23an, frogaren A atala burutuz. Egun berean epaimahairi programazio didaktikoa (B1) eman behar zaio.

**2.- Frogaren atalak:** bi atal izango duen froga bakarra. Epaimahaiak amaieran froga globalaren emaitza jakinaraziko du, beraz atalak ez dira kanporatzaileak izango.

**A atala:** idatziz garatu beharko den oposaketariak hiru gaietatik aukeratuko duena. Atal hau oposaketari guztiek batera burutuko dute, eta gutxienez horretarako bi ordu izango dira. Parte honek amaierako emaitzaren (notaren) %40a balioko du, 0 eta 10 bitartean baloratuz.

**B atala:**

**B1:** programazio didaktikoaren aurkezpena. Zenbakiturik joango diren unitate didaktikoak (gutxienez 15) bilduko dituen programazio didaktikoa, gehienez 50 orrialdetakoa (gehirriak kontatu gabe).

**B2:** aurkeztutako programazio didaktikoko unitate didaktiko baten (zoriz hirutik bat hautatuta) aurkezpena eta exposaketa. Oposaketariak bere saioa hasiko du aurkeztutako programazio didaktikoaren defentsarekin, ondoren unitate didaktikoarekin jarraituz. Hau guztia egiteko oposaketariak edukiko duen denbora ordu térdikoa izango da.

**Oposaketariak atal hau ordeztuz, Hezkuntza Administrazioak egin beharko lukeen informe batez, orain arte egindako lana baloratuko lukeen informea.** Informea soilik eskatu ahaliko dute urteko bakantean ari direnek.

**B3:** ariketa praktikoa. Soilik musika espezialitatean. Oposaketariak Epaimahaiak emandako abestia kantatu beharko du. Hau prestatzeko 20 minutu izango ditu.

B1, B2, B3 ataltxoak 0tik 10era baloratuko dira, eta amaierako notaren %30eko balioa izango dute; musikan berriz, ataltxo bakoitzak %20a.

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparaldean
Fermin Lasuen, 13 behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zumarkalea, 62 behea 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 irakaskuntzabizkaia@ labsindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	Martzelo Zelaieta 75, 2-A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	7 Coursic Karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org



**LEHIAKETA FASEA. %40a**

- **Oposaketariek ezingo dute 10 puntu baino gehiago lortu.**
- **Aurretiko irakas-lana: gehienez 7 puntu.**
  - Ikastetxe publikoetan maisu maistren kidegoan emandako urte bakoitzeko 0'7.
  - Ikastetxe publikoetako beste kudegoetan emandako urte bakoitzeko 0'35.
  - Kontzertatuetan emandako urte bakoitzeko 0'15 eta 0'10 hurrenez hurren.
- **Formakuntza: gehienez 4 puntu.**
  - Espediente akademikoa: 6raino 1 puntu, 7'5raino 1'25 puntu, 10raino 1'5 puntu.
  - Masterrak, Doktoradutzak: masterra 1, doktoradutza 1, doktoradutza sariarengatik 0'5.
  - Lehen zikloko titulazioak (diplomaturak, injineritza teknikoak): bakoitzeko 1.
  - Bigarren zikloko titulazioak (lizentziaturak): 1.
  - Musika edota dantzako gradu ertaina: 0'5.
  - Hizkuntza eskola Ofizialetako zertifikatua: 0'5.
  - Arte Plastikoetan goi Teknikoa: 0'2.
  - Lanbide Hezkuntzan goi Teknikoa: 0'2.
  - Kirol Zuzendariaren Goi Teknikoa: 0'2.
  - Beste formazio jardunak: 3 kreditu baino gehiagoko jardunak 0'2, 10 kreditu baino gehiagokoetan 0'5.

**PRAKTIKALDIA:**

Praktikaldia sei hilabetez luzatuko litzateke eta gutxienez 3 hilabetekoa izango litzateke salbuespen egoeratan.

**GOGORATU!**

Dagoeneko Hezkuntza Sailak LEP-OPE bat egiteko erabakia hartua du, baina estatu espainoletik iritsiko den Funtzio Publikorako Sarrera arautuko duen Dekretu berriaren zain dago berau konbokatzeke. Behin Dekretua argitaratu Hezkuntza Sailak deialdia plazaratuko luke.

Informazioa eduki bezain pronto helaraziko zaizue.

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparaldean
Fermin Lasuen, 13 behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zumarkalea, 62 behea 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 irakaskuntzabizkaia@ labsindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	Martzelo Zelaieta 75, 2-A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	7 Coursic KARRIKA 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org